Oi Pello, Pello

Herri kanta
Bertsioa: M. Laboa

Oi Pello, Pello
logale nauk eta
jinen niza oherat?
Irun ezan eta
gero, gero, gero,
irun ezan eta,
gero, gero, bai.

Oi Pello, Pello
astalkatu diat eta
jinen niza oherat?
Astalka zan eta
gero, gero, gero,
astalka zan eta
gero, gero, bai.

Oi Pello, Pello
irun diat eta
jinen niza oherat?
Harilka zan eta
gero, gero, gero,
harrilka zan eta
gero, gero, bai.

Oi Pello, Pello
harilkatu diat eta
jinen niza oherat?
Jos ezan eta
gero, gero, gero,
jos ezan eta
gero, gero, bai.



Goiztiri Argitaletxea, Baiona, 1964. Azala: Mikel Forkada.

Oi Pello, Pello
josi diat eta
jinen niza oherat?
Argia dun eta
bihar, bihar, bihar,
argia dun eta
jinen iz, bihar.

Bereterretxen kanthoria

Herri kanta
Bertsioa: M. Laboa

Haltzak eztü bihotzik
ez gaztanberak hezürrik
enian uste erraiten ziela aitunen semek gezürrik.

Andozeko ibarra
ala zer ibar lüzia!
Hiruretan ebaki zaitan harmarik gabe bihotza.

Bereterretxek oheti
neskatuari eztiki:
«Abil eta so egin ezan gizonik denez ageri».

Neskatuak berala
ikusi zian bezala:
hirur dozena bazabiltzala borta batetik bestera.

Bereterretxek leihoti
jaun kuntiari goraintzi
ehün behi bazereitzola, beren zezena ondoti.

Jaun kuntiak berala,
traidore batek bezala:
«Bereterretx, aigü bortala; ützüliren hiz berala».

«Ama, indazüt atorra
mentüraz sekülakua!
Bizi denak orit ükenen dü Bazko gauerdi ondua».

Marisantzen lasterra
Bostmendietan behera!
Bi belañez herresta sartü Lakharri-Büztanobira.

«Büztanobi gaztia,
ene anaie maitia,
hitzaz hunik ezpalinbada, ene semia juan da».

«Arreba, ago ixilik!
Ez, otoi, egin ngarrik!
Hire semia bizi bada, Mauliala dün juanik».

Marisantzen lasterra
jaun kuntiaren bortala!
«Ai! eil eta, jauna, nun düzie ene seme galanta?»

«Hik bahiena semerik
Bereterretxez besterik?
Ezpeldoi altian dün hilik; abil, eraikan bizirik!»

Ezpeldoiko jentiak,
ala sendimentü gabiak!
Hila hañ hüllan ükhen eta deüsere etzakienak!

Ezpeldoiko alaba,
Margarita deitzen dena,
Bereterretxen odoletik ahürkaz biltzen ari da.

Ezpeldoiko bukata,
ala bukata ederra!
Bereterretxen atorretarik hiur dozena ümen da.

Goizuetan

Herri kanta
Bertsioa: M. Laboa

Goizuetan bada gizon bat
deritzen zalo "trabuko"
itzak ederrak bihotza paltso
sekuia etzaio faltako
egin dituan difijentziak
berari zaizko damuko.

Ondo oroitu adi
zer egin uan Elaman,
difuntu horrek izandu balu
aidekorikan Lesakan
orain baiño len egongo itzan
ni orain-nagoen atakan.

Nere andreak ekarri zuen
Aranaz'tikan dotea,
obe zukean ikusi ez balu
Berdabio'ko atea,
orain etzuen ark edukiko
dadukan pesadunbrea.

Nere buruaz aznaiz oroitzen
zeren eznaizen bakarra
azitzekoak or uzten ditut
bi seme ta iru alaba
Jaun zerukoak adi dezala
oien amaren negarra.

Ituringo arotza

Herri kanta
Bertsioa: M. Laboa

Ituringo arotza, Erramun Joakin,
asarre omen zaude zeren degun jakin
santurik ez daiteke fiatu zurekin:
San Kristobal urtuta joalik egin.

Arotzak erran dio bere andreari:
"Hurtu behar dinagu; ekarran santu ori"
"Gizona, zertat zoaz? Bekatu da ori"
"Etzionagu erranen sekulan ni hori".

Ituringo garaile Ramuntxo Joakin
asarre omen zira zeren dudan jakin
konfesa zaite ongi erretorarekin:
ez dute zer fidatu santuek zurekin.

Kobrezko santurikan inon bazarete,
egoten al zarete ermendik aparte;
baldin arotz oriek jakiten badute,
garien egiteko urtuko zaituzte.

Urtsuako kanta

Herri kanta
Bertsioa: M. Laboa

— "Goiti zazu burua,
ene arreba Juana."
— "Eztezaket goratu,
anai Batista jauna."

— "Izorra omen zara,
ene arreba Juana."
— "Zertan ezagun nauzu,
nere anaia jauna?"

Zazpi errota berri,
zortzi jauregi txuri:
Orien guziengatik
nik ez Urtsura nari.

— "Zaldia zelarekin
zuretzat iarria da."
— "Nik iten dudan aurra
zure besokoa izain da."

Urtsuan zazpi leio,
zazpiak lerro-lerro;
Lantainako alaba
Urtsuan defuntu dago.



Herri-Gogoa Argitaletxea, 1969. Azala: Jose Luis Zumeta.

Munduaren esker ona

Hitzak: B. Brecht
Musika: M. Laboa

Haize otzeko lurrera
biluzirik heldu zinaten
ezer gabe, dardarez,
andreak zapi bat ematen.

Premiazkoak izan gabe
zuentzat karrosarik ez ziraden
mundura arroztu zinaten
gogoko izan zuenean batek.

Munduak ez du zorrik zuekin
joateko libre zerate:
ezer austerik askokin
baiñan haurrak beti herabe.

Haize otzeko lurretik
zoldaz beterik ba zoazte
denek mundua maitaturik
lur puska bat izan ba duzute.

Denak ala iñor ez

Hitzak: B. Brecht
Musika: M. Laboa

Gatibua; nork libratuko?
Leize zuloan daudenak ikusiko,
zure garraxiak aclituko;
gatibuek zaltuzte libratuko.

Denak ala iñor ez, dena ala ezer ez
Bakarka ezin da
fusillak ala kateak
denak ala iñor ez, dena ala ezer ez.

Gose zaudena; nork asetuko?
Ogia nahi duenari,
gose daudenek, ogia emango
bidea diote erakutsiko.

Galtzaille; nork mendekatuko?
zaurituekin alkartuz
guk zaurituek, zapalduek
zu zaitugu mendekatuko.

Gizon galdua; nork lagunduko?
miseria sofri ezin dutenak,
gaur ez bihar izan dadin eguna
galduekin gara alkartuko.


Liluraren kontra

Hitzak: B. Brecht
Musika: M. Laboa

Lilurarik ez!
ez dago itzultzerik
eguna atean dago
haize hotza dakar
ez da izango beste goizerik.

Tronpatzerik ez!
bizitza ez da huskeria,
edan ase arte beretik
ez da aski izango
galtzear zaudelarik.

Kontsolatzerik ez!
denbora ez da luzea,
ustelak lurpera
bizitza da haundiena
galtzea litzake galtzea dena.



Goiztiri Argitaletxea, Baiona, 1969. Azala: Mikel Forkada.

Denok ala inor ez B. Brecht-en poema bortitz bat da M. Laboak 1975az gero kantatu ez duena. Iruntzi bezala, *Liluraren kontra* dator jarraian (halaxe zetorren 1969ko grabaketan ere), bizitzaren aldeko kanta, Laboak geroztik ere etengabe kantatu duena. Azken kanta honen bigarren grabaketa jasotzen dugu hemen,1980an egina.

Denok ala inor ez es un poema radical de Brecht que Mikel Laboa deja de cantar en 1975. Como contraposición le sigue, y le seguía en la grabación de 1969, *Liluraren kontra* un canto a la vida que no ha dejado de interpretar desde entonces. Aquí se incluye la segunda grabación de esta última canción, realizada en 1980.

Amonatxo

Hitzak: Jean Barbier
Musika: Jean Barbier

Ollarra kukurruka etxean da ari
Dagoneko amatxo otoitzez Jaunari:
bi eskuak ikaran so kurutzeari:
Jaunak beira dezaion egun berriari!

Igandetan ederrik, iduri panpiña,
ziñez esan liteke: "Orra Erregiña",
Begia irriz dago, orobat ezpaña:
Oi, zer atso pollita, Jainkoak egiña!

Intxaur, piko, gaztañak, zarate aunditu,
zuen landatzallea da aldiz xahartu;
ainitz neguetako elurra gelditu,
eta ille urdiñak zaizkio txuritu.

Aurtxo txikia

Herri kanta
Bertsioa: M. Laboa

Aurtxo txikia negarrez dago
Ama, emalozu titia;
Aita gaiztoa tabernan dago
pikaro jokalaria.

Iñoiz aitatxo txintxotzen bada
Oi zeñen esker aundia!
Orduantxe nik bai ekarriko
zapata berri txuriak.

Joku gaizto, txar, zikin, ziztriña,
nondikan haugu sortua?
Nere malitetxo kutun polita,
ik dek alperrik galdua.

Egun da Santi Mamiña

Hitzak: G. Aresti
Musika: J.M. Arrizabaga

Egun da Santi Mamiña
benetan egun samina
goiko zeruan gorde dezala
Luzaro neure anima.

Esanen dizut egia
hau ez da usategia
erroi artean izan nintzaden
benetan ausartegia.

Itsas aldean izarra
hari begira lizarra
euskera salbo ikusi arte
eztut kenduko bizarra.

Kantatu zuen oilarrak
argitzen dira belarrak
ageda gure martiriari
moztu zizkaten bularrak.

Bularrak moztu zizkaten eta
Euskalerriak diotsa
solomo luze dultzerik gabe
eman zaidazu bihotza.

Eman zaidazu bihotza eta
ken berriz nahigabeak
esan noiz garen izanen gure
etorki unen jabeak.

Apur dezagun katea

Hitzak: G. Aresti
Musika: M. Laboa

Apur dezagun katea
kanta dezagun batera
hau da Fandango
Biba Berango.


Munduan beste asko lez
artaburua mozkorrez
atzo aspertu nintzaden
maisuez eta eskoiez.

Poeta naizenez gero
ez dut zerurik espero
bederatzi kopla ditut
lau zuhur eta bost ero.

Hilargiaren adarra
handik zintzilik abarrak
gogoan sarriak dira
zure bi begi nabarrak.

Zerutik dator harria
nundikan berriz argia
gau flun honetan dakuts
zure auspegi garbia.

Artzoko oilar gorria
inundik ez etorria
gosea arintze arren
judu batek igorria.



Goiztiri Argitaletxea, Baiona, 1966. Azala: Mikel Forkada.

Goizaldean eguzkiak
printzak daduzka bustiak
oso merke saltzen dira
euskaldunaren guztia.

Gure amonak esan dit
aitak ardoa edan dik
joan zaite tabernara
eta ekar zazu handik.

Euskararen asturua
ez da gauza segurua
askozez hobekiago
dago munduan judua.

Eta hau horrela ez bazan
sartu dedila kalabazan
ipui txit barregarriak
kontatu nituen plazan.

Assentiré de grat

Hitzak: S. Espriu
Musika: M. Laboa

Assentiré de grat, car només se'm donà
d'almoina la riquesa d'un instant.

Si podien, però, durar
la llum parada, l' ordre clar
dels xiprers, de les vinyes, dels sembrats,
la nostra llengua, el lent esguard
damunt de cada cosa que he estimat!

Voltats de por, enmig del glaç
de burles i rialles d'albardans,
hem dit els mots que són la sang
d'aquest vell poble que volem salvar.

No quedem soles en l'aigua, cap senyal
de la barca, de l'home, del seu pas.
L'estrany drapaire omplia el sac
de retalls de records i se'n va,
sota la fosca pluja, torb enllà,
pels llargs camins que s'esborren a mar.

Gogoz onartuko dut, zeren ez baitzitzaidan,
limosna bezala, instantearen aberastasuna baizik ernan.

Iraun zezakeen, ordea, argi geldituak
altzifreen, mahastien, soroen ordena zehatzak,
gure hizkuntzak, maite izan ditudan
gauzei buruzko begirada mantxoak!

Ikaraz inguraturik, burla eta
bufoien irri kaskarren jela artean,
salbatu nahi dugun herri zahar honen
odol diren hitzak esan ditugu.

Ez da ildorik gelditzen uretan,
gizonaren, bere pausoen, txaluparen
inolako seinalerik ez.
Trapero arrotza, oroitzapenen adabakiekin
zakua bete eta joan egiten da
euri zakarraren pean, zurrunbiloez haruntz,
itsasoan ezabatzen diren bide luzeetan barrena.

Zure begiek

Hitzak: D. Landart
Musika: M. Laboa

Zure begiek
ene maitia
ba dute biek
dirdir eztia

Zeruko lore
miresgarriak
izarren pare
xoragarriak.

Gazte gaztia
zira oraino,
egun guzia
nago zuri so.

Zure begiek
erotzen naute
eta guziek
nahi luzkete.

Gaua delarik
mundurat jausten
Jauna zerutik
da urrikaltzen.

Zure begien
gozo hori
egon dadien
eder ta garbi.

Ene nahia
ziñez aundia
zu izatia
nere andria.

Haika mutil

Herri kanta
Bertsioa: M. Laboa

Haika, mutil, jeiki hadi,
argia den mira hadi!»
–Bai, nausia, argia da,
gur'oilarra kanpoan da.

«Haika, mutil, jeiki hadi
uria den mira hadi.»
–Bai, nausia, uria da,
gure orra bustia da.

«Haika, mutil, jeiki hadi,
surik baden mira hadi.»
–Bai, nausia, sua bada,
gur' gatua beroa da.

«Haika , mutil, jeiki hadi,
hortxet zer den mira hadi.»
–Bai, nausia, haizea da,
gur'leihoa ideki da.

«Haika, mutil, jeiki hadi,
kanpoan zer den mira hadi.»
–Bai, nausia, elurra da,
lurra xuriz estali da.

«Haika, mutil, jeiki hadi,
urean zer den mira hadi.»
–Bai, nausia, ardia da,
aspaldian itoa da.

«Haika, mutil, jeiki hadi,
zer oinon den mira hadi.»
–Bai, nausia, egia da,
mutiltto hau unatu da.

Gogo eta gorputzaren zilbor-hesteak

Hitzak: J.A. Artze
Musika: M. Laboa

Bi kate;
biak ebaki beharrezkoak
bat gorputzaren bizitzeko
bestea gogoaren askatzeko.

Adizu ama
sortze berean
zuri gorputzez
lotzen ninduen zilbor-hestea
sendagilleak nola ebaki zuen.
Lehengo eten beharra izan zen:
bizitzaren bizitzeko lehen leqea.

Haurtzaroan
titia eman zenidan.
mutil-zaroan
eskoietara biali
bizitzarako harmak hartze arren.

Dana eskertzen dizut;
duen balore guztian,
nik ahal dutan neurrian.

Bainan, gaztaroan
amatxo maite!
ohar zaite,
benetan maite nauzun ama
izan nahi baduzu
eta nik zu maitatzea,
ez utzi bakarrik,
bultza behar nauzula.

Hau baita bide bakarra
biok alkar sanoki maitatzeko
biok alkar osoki eta betikoz maitatzeko;
zuk zure nortasunaz, nik nereaz:
zuk zure nortasunaz, nik nereaz,
Ama! eten dezagun
lehen gorputzarena bezela
orain, gogoaren zilbor-hestea.

Gaberako aterbea

Hitzak: B. Brecht
Musika: M. Laboa

Kontatu didate Nueva York-en
Broadway eta 26 karrikaren kantoian,
Negu gorrian, gizon batek gabero
gendeari otoi eskatzen
aterbea bilatzen duela
bilutsirik daudenentzat.

Mundua ez da era hortan aldatzen
Gizonen hartu-emanak ez dira hobekitzen
zama-aroa ez da hola laburtzen
Baina gizon batzuek gau batez, ohea dute
aterbean haize otzik ez eta
bereri zijoakien elurra, karrikan ari da.
Liburuaren irakaspenik ez ahaztu gizona!

Gizon batzuek gau batez ohea dute,
aterbean haize hotzik ez eta
bereri zijoakien elurra, karrikan ari da.
Bainan mundua ez da era hortan aldatzen
Gizonen hartu-emanak ez dira hobekitzen
Zama-aroa ez da hola laburtzen.

Izarren hautsa

Hitzak: X. Lete
Musika: M. Laboa

Izarren hautsa egun batean
bilakatu zen bizigai,
hauts hartatikan uste gabean
noizpait ginaden gu ernai.
Eta horrela bizitzen gera
sortuz ta sorluz gure aukera
atsedenik hartu gabe:
lana eginaz goaz aurrera
kate horretan denok batera
gogorki loturik gaude.

Gizonak badu inguru latz bat
menperatzeko premia,
burruka hortan bizi da eta
hori du bere egia.
Ekin ta ekin bilatzen ditu
saiatze hortan ezin gelditu,
jakintza eta argia:
bide ilunak nekez aurkitu
lege berriak noizpait erditu
hortan jokatuz bizia.

Gizonen lana jakintza dugu;
ezagutuz aldatzea,
naturarekin bat izan eta
harremanetan sartzea.
Eta indarrak ongi errotuz
gure sustraiak lurrari lotuz
bertatikan irautea:
ezaren gudaz baietza sortuz
ukazioa legetzat hartuz
beti aurrera joatea.

Ez dadukanak ongi ohi daki
eukitzea zein den ona,
bere premiak bete nahian
beti bizi da gizona.
Gu ere zerbait bagera eta
gauden tokitik hemendik bertan
saia gaitezen ikusten:
amets eroak baztertuz bertan
sasi zikiñak behingoz erreta
bide on bat aukeratzen.

Gu sortu giñen enbor beretik
sortuko dira besteak
burruka hortan iraungo duten
zuhaitz ardaska gazteak.
Beren aukeran jabe eraikiz
ta erortzean berriro jaikiz
ibiltzen joanen direnak:
Gertakizunen indar ta argiz
gure ametsa arrazoi garbiz
egiztatuko dutenak.



Mikel Laboak 1975ean egiten du kanta honen musika, eta testu egoki baten bila hainbat eta hainbat poema liburu irakurri ondoren, Xabier Leteren Izarren hautsa poeman aurkitzen du, (Bigarren poema liburua, 1974). Leteren baimenarekin, musikari egokitzen dio testua, eta IKIMILIKILIKLIK ikuskarian sartzen du kanta hau (1975-1978). 1975az gero, Laboaren ohiko errepertorioko kanta da eta, urtea joan eta urtea etorri, zuzenean gehien eskatzen direnetakoa. Grabaketa hau 1980koa da, eta Antton Valverdek laguntzen dio pianoan eta Antton Fernandezek sintetizadorean.

Mikel Laboa compone la música de esta canción en 1975, y tras consultar numerosos libros de poemas en busca de una letra adecuada para ella, la encuentra en el poema Izarren hautsa de Xabier Lete, publicado en su libro Bigarren poema liburua (1974). Con el permiso de Lete, adapta la letra a la música e incluye la canción en el espectáculo IKIMILIKILIKLIK (1975-1978). Desde 1975, forma parte habitual del repertorio de Mikel y es una de las canciones más solicitadas en directo a lo largo de los años. La grabación data de 1980 y le acompañan Antton Valverde al piano y Antton Fernández al sintetizador.

Baga-biga-higa (Lekeitio 2)

Musika: M. Laboa

Baga, biga, higa
laga, boga, sega.
Zal, zoi, bele
harma, tiro, pun!

Xirristi-mirristi
gerrena plat,
Olio-zopa,
Kikili salda,
Urrup edan edo klik…
ikiriliklilklik…



Jose Luis Zumetak
Lekeitioak diskoaren azalerako egindako pinturaren xehetasunak.

Mikel Laboak 1969an egin zuen kanta hau (*Lekeitioak* sail esperimentaleko bigarrena), esanahi logiko jakinik gabeko hitz eta soinu jokoz osatutako gai fonetiko-musikala da. Kantaren oinarria egiteko, Laboak bi poema tradizional hartzen ditu Manuel Lekuonaren *Literatura oral vasca* liburutik, biak lotzen ditu eta musika jartzen die, *crescendo* luze batean obsesiboki kateatzen diren joko fonetikoak inprobisatuz. Laboak 1969an estreinatu zuen kanta honek izena ematen dio, bertan txertaturik, EZ DOK AMAIRU taldearen *Baga-biga-higa* ikuskariari 1970-1972 bitartean.1969az gero, Laboaren ohiko errepertorioko kanta da; lehen grabaketa argitaratua 1974koa da eta hainbat bertsio egin ditu geroztik.

Se trata de un tema fonético musical (segundo de la serie experimental Lekeitioak) compuesto por Mikel Laboa en 1969 y que contiene juegos de palabras y sonidos, carentes de un sentido lógico determinado. Laboa toma como base para la canción dos poemas onomatopéyicos tradicionales recogidos en el libro Literatura oral vasca *de Manuel Lecuona, los une y les pone música, improvisando un juego de sonidos fonéticos que se encadenan obsesivamente en un largo crescendo. Este tema, estrenado por Laboa en 1969, se incluye y da título al espectáculo* Baga-biga-higa *representado por el grupo EZ DOK AMAIRU entre 1970 y 1972. Desde 1969, forma parte de su repertorio habitual; la primera grabación publicada data de 1974 y posteriormente se han realizado muchas versiones del mismo.*

Txoria txori

Hitzak: J.A. Artze
Musika: M. Laboa

hegoak ebaki banizkion
nerea izango zen,
ez zuen aldegingo.

bainan,
honela
ez zen gehiago txoria izango
eta nik…
txoria nuen maite.

Mikel Laboak 1969an egiten du kanta hau J.A. Artzeren izenburu bereko olerkian oinarrituta. Orduez gero, Laboaren ohiko errepertorioko kanta da eta hainbat grabaketa egin ditu. Gaur egun ospe eta arrakasta handia lortu du. Hemen jasotzen dugun grabaketa, 1976an Donostiako Belodromoan zuzenean egina da, Herri Irratiak antolatutako *24 orduak euskaraz* kantaldian.

Canción compuesta por Mikel Laboa en 1969, tomando como base el poema del mismo título de J.A. Artze. A partir de esta fecha, esta canción forma parte del repertorio habitual de Laboa que ha realizado diferentes grabaciones de la misma, y hoy en día ha alcanzado una gran popularidad. Aquí incluimos la grabación realizada en directo, en 1976, en el Velódromo de San Sebastián, en el concierto 24 orduak euskaraz, organizado por Herri Irratia.



Jose Luis Zumetak
24 orduak euskaraz ekitaldiaren kartelerako egin zuen pintura.

Martxa baten lehen notak

Hitzak: J.A. Artze
Musika: M. Laboa

Eguzkiak urtzen du han goian
gailurretako elurra
uharka da jausten ibarrera
geldigaitza den oldarra

Gure baitan datza eguzkia
iluna eta izotza
urratu dezakeen argia
urtuko duen bihotza

Bihotza bezain bero zabalik
besoak eta eskuak
gorririk ikus dezagun egia
argiz beterik burua

Bakoitzak urraturik berea
denon artean geurea
etengabe gabiltza zabaltzen
gizatasunari bidea

Inon ez inor mepekorikan
nor bere buruaren jabe
herri guztiok bat eginikan
ez gabiltza gerorik gabe

Batek goserikan diraueino
ez gara gu asetuko
beste bat loturik deino
ez gara libre izango.



1977 urtea aurrera doa eta, Franco hil ondoren, estatuko lehen hauteskundeak izango dira. Kalean era askotako "martxak" entzuten dira: Mikel Laboak gogokoa du *Internazionala*, baina ez du jasotzen gure herriaren antzera, bizirik irauteko borrokan ari diren herri txikien arazoa; martxa nazionalak *chauvinista* eta ponpatsu samarrak suertatzen dira maiz. Zergatik ez egin martxa bat (*Martxa baterako oharrak* izenburua jartzen dio), gizakien eta herrien arteko elkartasunaren ideiaren aldekoa, herri eta gizaki bakoitzari dagokion begiramena eta ezagutzatik abiatuz? Ideia horiek gogoan, Laboak martxaren musika egiten du eta J.A. Artzeri eskatzen dio idazteko testu bat ideia orokor horietan oinarrituz. Kanta hau da emaitza, Laboak 1980an grabatzen duena.

Corre el año 1977 y se van a celebrar en el Estado español las primeras elecciones después de la muerte de Franco. En la calle suenan muchas "marchas" diferentes: *La Internacional* gusta a Laboa pero no recoge el problema de los pueblos pequeños que luchan por subsistir, como el nuestro; las marchas nacionales resultan con frecuencia chauvinistas y grandilocuentes. ¿Por qué no hacer una (*Apuntes para una marcha*, la titula) que recoja la idea de la solidaridad entre los seres humanos y la comunidad entre los pueblos, partiendo del respeto y reconocimiento a cada uno de ellos? Con estas ideas "in mente", Laboa compone la música y pide a J.A. Artze que escriba la letra a partir de esas ideas generales. El resultado es esta canción que Laboa graba en 1980.

Musikariak (kronologiaren arabera)

Mikel Laboa
Ahotsa eta gitarra

J.M. Zabala
Gitarra elektrikoa (Haika mutil)

A. Valverde
Moog (Bereterretxen kanthoria)

J.J. Tarragona
Akordeoia (Gogo eta gorputzaren zilbor-hesteak)

J.A. Ontoria
Akordeoia (Lilluraren kontra)

A. Valverde
Pianoa (Izarren hautsa)

A. Fernandez
Sintetizadorea (Izarren hautsa)

G. Muga
Flauta (Oi Pello, Pello; Martxa baten lehen notak)

I. Salvador
Pianoa (Gaberako aterbea)

J. Silguero
Saxofoi altua (Gaberako aterbea)

E. Salvador
Baxua (Gaberako aterbea)

I. Salvador
Akordeoia (Assentiré de grat)

H. Voutkkov
Biolontxeloa (Assentiré de grat)

I. Salvador
Akordeoia (Goizuetan)

Besteak

Marixol Bastida
Produkzioa

Zumeta
Azala eta marrazkiak

J.L. Agote
Diseinua eta maketa

J.A. Irigarai (B. Brecht), B. Atxaga (S. Espriu), J.L. Agote (azalpenak), Edurne Alegria (azalpenak), Itzulpenak

Arturo Delgado
Argazkiak

ERESBIL
1023018
G21-05117